


Zuhaitz Bat, Herri Bat





«Gu sortu ginen enbor beretik
sortuko dira besteak
burruka hontan iraungo duten
zuhaitz adaska gazteak.»

(X. Lete)

Bazen zelai berde bat non zuhaitz sendo bat zegoen, tximista batek ere botako ez zuela zirudien zuhaitz bat, zeinak bere inguruan zuhaitz txikiagoak zituen, haritz zaharra babestuko zuten zuhaitz txikiak. Bazen zelai hartan muino bat, muga bat, non muga hartatik aurrera beste zuhaitz-mota batzuk zeuden. Eta zelai berdean lore txuriek eta tximeleta gorriek kolorea ematen zioten haritzari, eta mugaz harunzko zelai gorrian lore horidun oteek infernu bilakatzeko zuten beraien lur idorra. Eta eguzkia irteten zen Ekialdetik eta ezkututzen zen Mendebaldean; eta eguzkia sortzen zen Sortaldean eta sartzen zen Sartaldean.

Baziren zelai berde hartan hiru zati ezberdin; bata, haritz handiaren zatia, beste hiru zati txikiagotan zatitua; bat loretsua, haritzuna, zikina eta bestea lore faltsu eta sasilorez betea. Bigarren lur-eremu handia, zelaiaren bihotzean zegoen kokaturik, haritz handi haren-gandik alde batera desbideratua, eta eremu ikaragarria zen, lore sendo sakabanatu eta sasi-

lore bilduz osatua. Hirugarrena, Iparraldean zegoen, muino txiki baten atzean, beste muga baten atzean, eta txikia izanik, beste hiru zatitan banaturik zegoen; baziren zuhaiskak, baziren lore *urdin*, *gorri* eta *zuriak* ere. Eta eguzkia irteten zen Ekialdetik eta ezkututzen zen Mendebaldean; eta eguzkia sortzen zen Sortaldean eta sartzen zen Sartaldean.

Bazen zelai hartan urmael bat, haritzaren inguruan eta muino txikiaren ondoan, zeinetan muinotik haruntz uso *zuri* hilotzen luma galduak zeuden ur *urdin*etan, eta muino txikiaren ondoko zuhaixken sustraietako odol *gorria*; eta muinotik honantz dena zen odol, haritz handiaren sustraietako odol, eta haritzaren hosto idor *horituak* zebiltzan odol *gorritan*, uhin zentrukideak sortuz. Eta eguzkia irteten zen Ekialdetik eta ezkututzen zen Mendebaldean; eta sortzen zen Sortaldetik eta sartzen zen Sartaldean.

Baziren harizpean bi otso, eta haritzean gurutzea. Bazen ondoan urmaela, eta ertzean hiru hagin. Baziren inguruan gaztelua eta lehoia, eta gazteluan berau defendatuko zuen indarra, ezpata. Bazen lurralde zabalean odola, eta odoletan berau sortzen zuten kateak. Baziren muinoaren atzean beste katea batzuk, aurrekoen ahaide, bi lehoi eta ezpata. Eta eguzkia irteten zen Ekialdetik eta ezkututzen

zen Mendebaldean; eta eguzkia sortzen zen Sortaldean eta sartzen zen Sartaldean.

Bazen zuhaitz eta landare haien sustraietan izerdia, Euskara, zeina ez zen beste zelaietako landareengana egokitzen. Bazen izerdi berezi bat, ezberdina, baina nortasuna galtzen zihoan izerdi bat, eta beste zelaietako izerdien antzeko bilakatzen ari zena; beste izerdiekin nahastuz haritz eta zuhaiskak ote bihurtzea lortuko zuena. Bazen ordurako berezitasuna galdurik zuen izerdi berezi bat. Eta eguzkia irteten zen Ekialdetik eta ezkututzen zen Mendebaldean; eta eguzkia sortzen zen Sortaldean eta sartzen zen Sartaldean.


Baina heldu zen egun bat zelai mugatu hartako landareen egonezinak eztanda egin zuena, egoera hura jasan ezinik muinoetarantz abiatu zirena beren lurra babesteko. Egin zuten lehen ilara eta egin zuten bigarren ilara. Pasatu zuten muino txikia eta jarri ziren muino bat osatuz landare *gorri*, *zuri* eta *urdin*en aurrean. Eta joan ziren hegoaldera eta muino berri bat sortu zuten ote *horien* aurrean lur *gorriaren* honuzkaldetik eta lurralde zabalaren amaieran. Eta muinoak eginez zelai mugatu berri bat sortu zen, baina ez indarkeria eta gogorkeriaz jarritako mugadun zelai bat; bakez beren zelaia babesteko jarritako mugadun zelaia baizik. Eta eguzkia irteten zen Ekialdetik eta ezkututzen zen Mendebaldean; eta eguzkia sortzen zen Sortaldean eta sartzen zen Sartaldean.

Eta haritza babesturik sentitzen zen landareengandik eta zelaia geroz eta gehiago loratzen hasi zen. Hasi zen lur zikina garbitzen. Hasi ziren sasi-loreak zimeltzen. Hasi zen zainetako izerdia garbitzen. Hasi zen zelaia norta-

sun hartzen. Baina aldi berean zelai idortuko ote nagusia hasi zen kezkatzen eta iparraldeko beste zelaiko sasia ere hasi zen kezkatzen eta bitartean zelai berdea ari zen loretzen. Hasi zen zelai idortuko otea oteak batzen eta hasi ziren oteak ibiltzen eta hasi ziren oteak zelai berdera hurbiltzen. Eta hasi ziren lore *gorri*, *urdin* eta *zuriak* ibiltzen' eta hasi ziren iparraldeko lore eta sasiak inguratzen. Eta bitartean haritza ari zen udaberriko kolorea hartzen eta ari zen zelaia loretzen. Eta eguzkia irteten zen Ekialdetik eta ezkututzen zen Mendebaldean; eta eguzkia sortzen zen Sortaldean eta sartzen zen Sartaldean.

Eta halako batean konturatu zen haritza arnasa nekezago hartzen zuela eta sustraietako izerdia agortzen zihola. Eta lehendik eginiko muinoak hazi nahi zituen arnasberritzeko baina jadanik lore *gorri*, *urdin* eta *zuriak* iragana zuten ifarraldeko muga eta baita ote *horiek* ere beren lur *gorrietatik* bereizten zuten hegoaldeko muga. Eta konturatu zen haritza itotzen ari zela eta ordurako beranduegi zela; zelai barneko sasi-loreak beren lana egin zutela zelai handiago batzuei beren nortasuna salduz eta bertakoen saldukeriak eta kanpokoen jasanezinak hartuz bukatuko zutela. Bitartean, sasi-loreak ari ziren ugaltzen eta gune loretsuak zimeltzen. Eta eguzkia irteten zen Ekialdetik eta ezkututzen zen mendebaldean; eta eguzkia sortzen zen Sortaldetik eta sartzen zen Sartaldean.

Orduan zelaiko haize onak haritzari mugitu zion iparraldeko adarra eta hasi ziren iparraldean lore ederrak lehen ilara osatzen; baina zelaiko haize gaiztoak mugitu zion hegoaldeko adarra eta hasi ziren barneko sasi loreak lehen



ilara zapaltzen Eta kanpotik eta barrutik eta barrutik eta kanpotik lehen ilara bota zuten. Egin zuten bigarren ilara ere; baina kanpotik eta barrutik eta barrutik eta kanpotik bota zuten hura ere. Eta jadanik ez zegoen zelaiaren ifarralderik; ordurako zelai handiago baterako, lore gorri, urdin eta zuriz hornituriko zelai handiago baterako osagarri bihurtu bait zen. Baina, artean, bazen hegoaldeko lur zabala; baina etorri zen haize gaiztoa eta mugitu zelai-ko haritzaren adarra eta hasi ziren sasi-loreak lanean. Eta eguzkia irteten zen Ekialdetik eta ezkutatzen zen mendebaldean; eta eguzkia sortzen zen Sortaldean eta sartzen zen Sartaldean.

Une larri hartan haritza bere barneko ustelkeriaz ohartu zen eta barnean arra sentitu zuen. Arrarekin borroka egin nahi zuen baina ezin, eta konturatu zen arra errez nagusitzen zitzaiola. Begibistakoa zen ar hura zela sasiloreen jatorria, handik zetozela. Eta konturatzerako gainean zituen denak; bai zelai berdeko sasi-loreak, bai lur *gorriko* ote *horiak*, baita lore *gorri*, *urdin* eta *zuriak* ere. Baina hala ere bazekien azkenerarte borroka egiteko prest egon behar zuelá, bazekien bestela zelai berde hura betiko galduko zela, bazekien ondorengo loreek ez zutela jakingo zelai berde hura izan zenik ere. Eta borroka egin zuen. Bere indar guztiak ahitu arte. Sasiak gaineratu zitzaizkion, ar gehiago sortu, baina berak tinko zirauen. Oraindik zutik zegoen, harro zegoen, eta borrokan jarraitzen zuen. Eta eguzkia irteten zen Ekialdetik eta ezkutatzen zen Mendebaldean; eta eguzkia sortzen zen Sortaldean eta sartzen zen Sartaldean.

Han zebilen Haritza ezinean, baina oraindik

bazuen defentsa, bazituen lore leialak eta baita itxaropena ere. Noizbait zazpi zatitako zelai aske muinogabea izateko itxaropena, baina sasiak gainera zetozkion eta arrak ugaltzen ari zitzaizkion. Ez! Ez zuen beste zelai baten zati izan nahi! Ez zuen zelai *gorriko* zati *hori* jzan nahi! Berak, zazpi zatitako lore *zurigorridun* zelai *berde* izan nahi zuen! Eta ari zen ari, baina ezin. Eta ezinak etsipena ekartzen du beti, eta etsipenak porrota. Porrota! Zein hitz beldurgarria! Eta han zeukan ondoan geratzen zitzaion lore leial bakarra. Eta iritsi zen une bat etsipenak gain hartu eta lore hartan itxaropena utzi zuena! Loreak hartu zuen erreleboa, baina hasi zen kolorea gaitzen, hasi zen ote bihurtzen, eta bera izan zen haritza sustraietatik heldu eta zerraldo, luze bezain zabal utzi zuena. Eta hartu zuten sasiak haritza, bai. Eta haritza hilda zegoen, baina ez zuen goroldorik izango hezetasunean, ez perretxikorik gerizpean. Bizia galdu zuen. Bizia emateko indarra galdu zuen. Baina batez ere itxaropena galdu zuen. Eta eraman zituzten enborra eta lau adar ote nagusira, eta hiru adar lore *urdin*, *gorri* eta *zurien* muinera. Eta zatitu zuten, eta txikitu eta azkenik ote nagusia babesteko hesi bihurtu, eta zelaiak hasi zen gorritzen, eta otez betetzen eta jadanik hango izerdia beste bat zen, eta zeruan arrano batek hegan egiten zuen, lau gaztelu, lau lehoi, bi katea eta zinta *hori-gorriekin*, Askatasuna, Anaitasuna eta Berdintasuna aldarrikatuz. **ETA EGUZKIA IRTEN ZEN EKIALDETIK ETA EZKUTATU ZEN MENDEBALDEAN; BAINA EGUZKIA EZ ZEN SORTU SORTALDEAN ETA EZ ZUEN SARTALDEAN SARTZERIK IZAN...** ■

